



## OÑATI. GAZTEEN LOKALAK

GAZTEEN LOKALEN FENOMENOAREN INGURUAN HAUSNARTZEKO ETA ELKARBIZITZA PROTOKOLOA OSATZEKO GOGOETA PROZESUA, 2014-2015

**2015-01-14. GAZTEEKIN 1. SAIOA**



BILERAREN XEHETASUNAK:	DINAMIZAZIOA:
<ul style="list-style-type: none"><li>- Bilera zenbakia: 1</li><li>- Xede taldea: Gazte lokalen erabiltzaileak</li><li>- Data: 2015-01-14</li><li>- Lekua: Gaztelekua</li><li>- Hasiera ordua: 18:30</li><li>- Amaiera ordua: 20:45</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Parte hartzaile kopurua: 29 gazte, 11 neska eta 18 mutil</li><li>- Dinamizatzaileak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Xabier Piko (Gazteria zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Arkaitz Martinez de Albeniz eta EkhiZubiria (Aztikerreko bideratzaileak)</li></ul>

---

## **1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA**

---

Nerea Zubiak saioaren ongi etorria egin du.

Abiatutako partaidetzazko prozesu honen helburua gazte lokalen fenomenoaren inguruan inplikaturik dauden eragileen artean lokalen egoera eta elkarbizitza hobetzeko protokoloa adostea izango da helburua.

Honekin batera, Oñatin gazte lokalen egoera ezagutzea izango du helburu.

Ion Lopez, Oñatiko gazteria teknikariak prozesuaren kokapena egin du.

Gazte lokalen fenomenoak gaur egungo gazteen antolatze eta aisialdia kudeatzeko modu gisa ulertzen da eta errealitate hobeto ulertzeko prozesua dela hau.

Prozesuaren asmoa ez da, hasiera batean behintzat, Araudi edo ordenantza bat burutzea, baizik eta lokalen inguruko baldintza minimoak definitu eta elkarbizitzarako prozedura bat zehaztea.

Ondoren aurkezpen honen ondoren Arkaitz Martinez de Albeniz Aztikerreko bideratzaileak prozesuaren urratsak azaldu ditu:

- ✓ 0. Fasean burutu da jada: Oñatiko lokal guztiak identifikatu eta galdetegi bat pasa zaie lokalen errealitatea ezagutzeari begira. Herriko bi gazte ibili dira inkestatzaile lanetan.
- ✓ 1. Fasea: bilera bana egingo da gazte lokalen fenomenoan inplikatutako dauden eragileekin, kasu honetan banandurik. Hiru taldeetan banatuta egingo dira bilera hauek: gazteekin alde batetik, bizilagunekin bestetik eta jabe eta adin txikikoen gurasoekin bestetik..
- ✓ 2. Fasea: Gaian inplikatutako herritar guztiak elkarrekin lanean aritzeko espazioa izango da, gazteak, bizilagunak, jabeak, adin txikikoen gurasoak eta Udal ordezkariak, denak elkarrekin. Hiru bilera egitea aurreikusten da:
  - 1.bilera: Nolako harremanak daude?
  - 2.bilera: Lokaletako egoera eta baldintzak hobetzeko proposamenak
  - 3.bilera: Protokolorako proposamenak burutu

Gaurko saioaren gai ordena honakoa izango da:

- Aurkezpena: prozesuaren aurkezpena eta elkar ezagutze dinamika
- Galdetegien emaitza nagusien aurkezpena
- Gazte lokalen fenomenoak: gazteen errealitateari hurbilketa
- Harremanak eta egoera gatazkatsuak aztertzen
- Talde eragilearen azalpena eta lokalen mapa osatzea
- Saioaren amaiera eta balorazioa

---

## 2. GALDETEGIEN EMAITZEN AURKEZPENA

---

2014ko abenduaren 22tik 2015eko urtarrilaren 4ra bitartean Oñatin dauden lokalak ezagutzeko herriko bi gazte ibili dira lokaletan galdetegi bat pasatzen.

Guztira 24 gazte lokal identifikatu dira eta galdetegia 23 lokaletan egin da.

Aztikerreko dinamizatzailleak galdetegiaren ondorio nagusiak aurkeztu ditu.

Galdetegiaren ondorioak biltzen dituen txostena gazte lokalen blogean zintzilikatua dago:  
<http://www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/haur-eta-gazteak/gazte-lokalak>

---

## 3. GIROTZE ARIKETA

---

Aurkezpen dinamika bat egin da partaideak eta dinamizatzailleak elkar ezagutzeko asmoarekin. Partaideak bikoteka jarri dira eta hiru galderari erantzun diete:

- Zergatik etorri zara gaur saiora?
- Zein da lokalean izan duzun esperientziarik onena?
- Eta kaxkarrena?

Hona hemen konpartitu eta partaideek aipatutako iritzi batzuk:

<b>SAIORA ETORTZEAREN ARRAZOIA</b>
- Informazioa jasotzera lokalen egoeraren inguruan - Lokalen hobekuntza baten bila
<b>LOKALAK DUEN ASPEKTURIK ONENA</b>
- Lokal aldaketa, bizilagunekin arazoak izan genituen eta orain hobeto gaude - Lagunekin berriketan egon berandura arte
<b>LOKALAK DUEN ASPEKTURIK TXARRENA</b>
- Lokalak su hartu zigunean - Lapurreta izan genuenena lokalean - Arratoia topatu genuenean lokalean



## 4. LOKALEN FENOMENOA ETA PROZESUA, ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

Lau mahai desberdinetan banatuta 4 talde egin ditugu gazte lokalen jarduerarekin lotura duten aspektu desberdinak lantzeko.

Landu diren gaiak hauek izan dira:

- LOKALAK ZERTARAKO?
- LOKALEAN DITUGUN BEHARRAK
- LOKALETAKO HARREMANAK BESTE ERAGILEEKIN
- LOKALETAKO EGOERA GATAZKATSUAK

Talde bakoitza 10 minutu egon da mahai bakoitzean, modu honetan gai desberdinen inguruan iritzia emateko aukera eskainiz.

Jarraian mahai bakoitzean jasotakoak adierazten dira.

LOKALAK ZERTARAKO?	LOKALETAKO BEHARRAK	LOKALETAKO HARREMANAK BESTE ERAGILEEKIN	EGOERA GATAZKATSUAK
Zertarako erabiltzen dituzue lokalak eguneroko bizitzan?	Zein behar duzue lokalean hobeto egoteko edo bizitzeko?	Herriko zein beste eragilerekin izan nahi dituzue harremanak?	Ze gaietan bizi izan dituzue gatazkak edo bizi ditzakezuela aurreikus dezakezue?
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkargune bat laguntzat</li> <li>- Telebista ikusi</li> <li>- Erre</li> <li>- Edan</li> <li>- Afaldu</li> <li>- Berriketan egin</li> <li>- Eztabaidatu</li> <li>- Etxe merke bat da</li> <li>- Kanpoko lagunak batek lo egiteko</li> <li>- Norberak (taldeak) kontrolatzen duen espazio bat izatea</li> <li>- Parranda jarraitzeko lekua (afterra)</li> <li>- Pikaderua</li> <li>- Kiroletako materiala gordetzeko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gu oraindik ez daukagu lokalik</li> <li>- Komuna ez da ona egoera txarrean dago</li> <li>- Leiho bakarra daukagu</li> <li>- Sofak hobeagoak izatea</li> <li>- Hotza pasatzen dugu, subterraneo batean gaude eta korriente handia dago</li> <li>- Instalazio elektrikoak potentzia handiagoa izatea. Ezin ditugu bi gauza batera jarri</li> <li>- Ur instalaziorik ez daukagu. Hau jartzea gastu handia da</li> <li>- Kapritxoak izatea:wifia, proiektorea</li> <li>- Lokalaren distribuzioa hobeagoa izatea</li> <li>- Sarrera bajotik izatea eta ez garajetik</li> <li>- Elektrizitatearen faktura oso altua dugu. Potentzia handia daukagu</li> <li>- Extintorea izatea</li> <li>- Komuna eta ura izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beste lokalekin</li> <li>- Gaztetxearekin</li> <li>- Udalarekin harremana izatea. Udala bitartekari paperean ikusten dugu informazioa eta aholkularitza eskaintzeko</li> <li>- Beste eragileekin harremana izatea nahi dugu, horretarako esfortzua egiteko prest gaude</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lapurretak</li> <li>- Lokaleko giltzak galdu ditugunean jabe eta bizilagunarekin (ezin dugu kopiarik egin)</li> <li>- Lokalak su hartu zuenean</li> <li>- Lapurreta</li> <li>- Bizilagunekin bizikletak aparkatzeagatik</li> <li>- Lokalen artean soinuagatik</li> <li>- Gure aurrekoek bizilagunekin soinuagatik</li> <li>- Bizilagunekin usainengatik</li> <li>- Bizilagunekin zaratarengatik (oso exageratuak dira)</li> <li>- Sutea</li> <li>- Bizilagunekin musikarengatik</li> <li>- Beste lokal batekin atea arrankatu zigutelako</li> <li>- Jabearekin lokalaren ordutegiarengatik (itxiera ordutegia genenukan)</li> <li>- Bizilagunekin soinuarengatik</li> <li>- Bizilagunekin kotxe aparkalekuengatik</li> <li>- Bizilagunekin zikinkeriaengatik</li> </ul>
Zein esperientzia gozagarri gogoratzen duzue zure lokalean?		Lokaletako errealitatea herriratzeko gogorik duzue?	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Asteazken zehar ikusten ez dituzun lagunak ikusteko lekua</li> <li>- "Punto de encuentro"</li> <li>- "Auzolanian" emuten xate gustoko itxura</li> <li>- Lagunartean ikastera joateko</li> <li>- Espazioak banatuta izatea (gune soziala, jolasteko gunea...)</li> <li>- Bulderra eskalatzeak</li> <li>- Kasu batzuetan lokalen arteko harremana dago eta horrek kuadrila desberdinak ezagutzea ahalbidetzen du</li> <li>- Pertsona gisa heldutzeko</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bai</li> <li>- Nola?</li> <li>- Udalak informazioa edukitzea</li> <li>- Berba egiten</li> <li>- Informazioa erai herrian</li> </ul>	

(ardurak hartu)

- Neguan hotzari aurre egiteko lekua da
- Talde handian joateko lekua izatea
- Etxea eta kalea ez den beste espazio bat izatea
- Eskolako lanak egiteko leku bat izatea Kulturra joan behar izan gabe
- Lagunekin ikasteko (zalantzak argitu)
- Gabetan kalera irteteko ordua heldu aurretik denbora egiteko
- Gose izanez gero jana dago bertan (soziedadeen antzera)




## 5. LOKALEN FENOMENOA, ROL PLAYING

Hurrengo dinamikan lokaletan bizitako egoera gatazkatsuei erreparatu eta hauek aztertzeke ariketa egin dugu.

Gatazketan alde desberdinak daude harremanetan eta dinamika horren asmoa egoera erreal batean harremanean dauden pertsonaiek nola mezu eta diskurtsoak dituzten ikustea da helburua, nork bere burua ikusi eta gainontzeko protagonistak nola ikusten dituen aztertuta.

Honela gatazkatsu bezala bizi diren hiru gai edota egoera hautatu dira 3 taldetan lantzeko:



SOINUA TALDEA	ESPAZIO PUBLIKOA	ORDUTEGIEN TALDEA
<p>Egoera: Larunbat gaua goizeko 01.00etan bizilagunak zaratagatik kexatzen dira</p> <p>Protagonistak:</p> <p>Bizilagunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Zarata aitzakia da</li> <li>Gaizki begiratzen gaituzte</li> <li>Gutaz irudi txarra daukatu, lokala zulo ilun, arriskutsu eta zikina dela uste dute</li> <li>Egia da batzuk trabarik ez dutela jartzen</li> </ul> <p>Gazteak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ez daukagu ezer ezkutatzeko</li> <li>Bizilagunei lokalak erakusteko prest gaude</li> </ul> <p>Jabeak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Irudi ona daukagu jabeentzat</li> <li>Lokalaren intsonorizazioa proposatzen diegu</li> </ul> <p>Udaltzainak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Multa jartzeko pertsona gisa ikusten gaituzte</li> </ul>	<p>Egoera: Bizikletak lokal kanpoan uzteagatik arazoak izan ditugu</p> <p>Protagonistak:</p> <p>Gazteak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lekurik ez daukagu bizikletak uzteko</li> <li>begi bistan uzten ez baditugu lapurtzeko aukera gehiago dago</li> </ul> <p>Bizilagunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Bizikletak traba egiten digu pasatzerakoan.</li> <li>Kexa guri egiten digu, ez jabeari</li> </ul> <p>Jabea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontuz ibiltzeko esaten du, gehiegi insistitu gabe</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ordutegi mugatua jartzeari ez zaio zentzurik ikusten, azken finian, gure presentziak sortu leizken arazoak ez dauka ordutegiakin lotura zuzenak, zaratiakin baizik. Beraz, zarata maila kontrolatzeko konpromisua hartuz gero, ordutegia mugatzeko beharrik ez litzake egongo.</li> <li>Gune pribatua da eta guk ordaintzen dugun heinean eskubidea izan bihar dugu sartu-irtenak nahi dugunean egiteko, etxe bat izango bailitzan.</li> </ul>

Ondoren talde bakoitzean landutako egoera aurkeztu da plenarioan, eta hainbat eztabaida egon dira.

- Bizikletak aparkatzeko gune gehiago jartzea interesgarria litzateke, arazo baten iturburu izanik
- Lokalak bizilagunei erakustearena lokala eta bizilagunen arteko ekimen bat izan beharko luke, ez dadila lokalen ate irekien egun antzeko zerbait izango. Gure intimitatea babestu behar dugu ere.

---

## 6. TALDE ERAGILEA

---

Saioa amaitu aurretik prozesu honen jarraipenerako sortu den talde eragilea zer den azaldu da, eta partaideei bertan parte hartzera animatu zaie.

Talde eragilea prozesu honetan parte hartuko duten aldean artean osatuko den mahaia da. Mahai honen funtzioa prozesuaren fase desberdinetan erabiliko den diseinu metodologikoa adostea izango da, prozesuaren jarraipena egitearekin batera.

Talde eragilearen lehenengo bilera **otsailaren 4an** izango da, arratsaldeko 18:30etan Bidebarrietako erabilera anitzeko gelan (euskaltegi ondoan).

---

## 7. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK

---

Dinamizatzaileak hurrengo hitzorduak gogoratu dira: talde eragilez gain, hurrengo saioa bizilagun, jabe eta adin txikikoen gurasoekin batera egingo da **Otsailaren 11an, arratsaldeko 18:30etan** Gaztelekuan.

## 8. SAIOAREN BALORAZIOA

---

Partaideei gaurko saioa hiru aspektuen arabera baloratzea eskatu zaie.

- ✓ Egondako giroa
- ✓ Erabilitako metodologia
- ✓ Landu diren edukiak

Honetarako ilara batean bakoitzak bere burua 0tik 10era kokatzea eskatu diegu.

Partaide gehienak 7 eta 10 artean kokatu dute euren burua.

Honetaz gain balorazio orokor gisa jasotako iritziak:

*Beharrezkoa iruditzen zaigu prozesu hau*

*Gustora egon naiz*

*Urrats inportantea*

*Interesgarria izango da*



**Saioan parte hartu izanagatik eskerrak emanez, bukatutzat eman da bilera 2015eko urtarrilaren 14an, 20:45etan.**

## 9. MAPAREN OSAERA

---

Saioaren bukaeran Oñatiko gazte lokalen mapan gazteei ze lokaletatik etorri diren markatzea eskatu diegu, hona hemen emaitza:





Hemen jasotzen dugun saioko gertakariak erakusten dizkigun papelografoa:

